JANTZIEN ETA NORBERA BABESTEKO EKIPAMENDUEN HORNIDURARAKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. LEHIAKETAREN XEDEA

Jantzien eta norbera babesteko ekipamenduen hornidura kontratatzea izango da lehiaketa honen xedea. Zenbatetsitako kantitateak dira. Lote bakoitzaren aurrekontuaren mugaraino handitu daitezke.

2. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratazioaren xede den zerbitzua urtebetez eskainiko da, 2023ko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita.

3. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 44.372,22 eurokoa da (BEZ barne), urtebeterako.

Eskainitako prezioan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino txikiagoa izan beharko den horretan, kontratua egikaritzetik eratorritako zerga eta gastu guztiak sartuko dira, eta eskainitako prezio horretan sartuko da balio erantsiaren gaineko zerga.

Lehiaketa loteka egiten da, hau da, lehiakideek egoki deritzen loteen eskaintzak aurkeztu ditzakete eta hala, lote bati, biri, hiruri eta abarri dagozkien eskaintzak egin ditzakete.

Modu bereizian esleituko da lote bakoitza.

Honako hau izango da lote bakoitzaren lizitazioaren gehieneko prezioa urtebeterako:

1. Lotea:……..1.615,01 € (BEZ barne)
2. lotea:……7.806,48 € (BEZ barne)
3. lotea:……..2.924,57 € (BEZ barne)
4. lotea:……9.006,03 € (BEZ barne)
5. lotea:……..17.229,19 € (BEZ barne)
6. lotea:……4.362,05€ (BEZ barne)
7. lotea:……..1.428,89 € (BEZ barne)

Kontratuaren balio zenbatetsia

Kontratuaren urtebeterako balio zenbatetsia 36.671,26 eurokoa da (BEZ gabe). Zenbateko horretan sartuta daude kontratua egikaritzetik eratorritako gastu guztiak, eta eskainitako prezio horretan ez dago sartuta balio erantsiaren gaineko zerga.

Jantziz eta norbera babesteko ekipamenduz hornitzeko zerbitzua kontratatzetik eratorritako edo eratorri beharreko gastu guztiak ere barne hartzen ditu, honako hauek, zehazki:

- Debabarrena eskualdeko mankomunitateko instalazioetaraino eramateko garraio-gastuak eta lana burutu beharreko epean sor daitezkeen gainerako gastuak

Lote bakoitza osatzen duten jantzien gehienezko unitate prezioa (BEZ gabe) hauxe izango da:

1. sorta: Tailerreko laneko arropa

KONTZEPTUA	**Banakako prezioa BEZ gabe**
Mekanikoentzako urpekariak	58,00 €
Udako Mekanikoentzako petoak	44,00€
Kotoizko buzoak	15,00€
Tailerreko txalekoak	64,00€
Kamiseta termikoa	17,81€
Praka termikoa	17,81€

2. sorta: Hiri Hondakinetako eta Kale Garbiketako zerbitzuetarako laneko arropa

KONTZEPTUA	**Banakako prezioa BEZ gabe**
Prakak	13,52€
Mahuka motzeko poloak	8,44€
Udako biserak	1,39€
Forrodun prakak	18,22€
Mahuka luzeko poloa	10,94€
Jertseak	23,51€
Artilezko txanoak	2,81€
Uretako txanoak	1,92€

3. sorta: Arropa epela

KONTZEPTUA	**Banakako prezioa BEZ gabe**
Neguko zamarra	29,00€
Erraz ikusten den bigungarridun txalekoa	19,00€
Parkak	29,00€
Erraz ikusten den txalekoa bigungarririk gabe	3,30€

4. sorta: Uretarako arropa

KONTZEPTUA	**Banakako prezioa BEZ gabe**
Uretako jantziak	82,70€

5. sorta: Oinetakoak

KONTZEPTUA	**Banakako prezioa BEZ gabe**
Segurtasun oinetakoak punta sendoarekin	23,00€
Segurtasun oinetakoak puntarik gabe eta txantiloiarekin	27,00€
Segurtasuneko zapatila	63,00€
Segurtasun bota punta sendoarekin eta txantiloiarekin	76,00€
Segurtasun bota puntarik gabe eta txantiloiarekin	68,00€
Segurtasun bota puntarekin eta txantiloiarekin-tailerrera	25,00€
Ur-botak puntarekin eta txantiloiarekin	17,00€
Ur-bota puntarik gabe eta txantiloiarekin	10,00€
Segurtasun-botak, puntarekin eta txantiloia-ureztatzaileentzat	72,00€

6. sorta: Eskularruak

KONTZEPTUA	**Banakako prezioa BEZ gabe**
Lore ile-larruzko eskularruak	2,00€
Neguko eskularru iragazgaitzak	3,50€
Nylonezko eskularruak	1,00€
Moztea saihesteko eskularruak zamak jasotzen dutenentzat - DAR	5,00€
Nitrilozko eskularruak, behin erabiltzekoak	15,00€
Estolderiarako eskularruak	4,00€

7. sorta: Babeserako ekipoak eta beste batzuk

KONTZEPTUA	**Banakako prezioa BEZ gabe**
Partikulentzako maskara	1,74€
Ikatz aktibodun maskara	2,12€
Soldatzaileentzako maskara	4,50€
Pantailak bereziak	24,50€
Zarata saihesteko belarri-babesak	23,80€
Erabilera bakarreko txanoak	1,5€
Betaurrekoak	11,75€

KONTZEPTUA	**Banakako prezioa BEZ gabe**
Bisitarako betaurrekoak	1,50€
Burua babesteko kaskoak	26,50€

LOTEAK

Lehiaketa loteka esleitzen da, hau da, lehiakideek egoki deritzen loteen eskaintzak aurkeztu ditzakete.

Adierazitako unitateak estimazioak dira, beraz Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak ez du bermatzen adierazitako kopuru zehatzak kontsumituko direnik eta unitateak aldatu egin daitezke.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak horniduren eskaerak egin ahal izango ditu kontratua indarrean dagoen bitartean eta lote bakoitzari esleitutako aurrekontua agortu dezake.

Entregatzeko epea:

- Gure instalazioetan entregatu behar da eskainitako materiala, 20 eguneko epean gehienez ere, eskaera egiten den egunetik zenbatzen hasita (eta ez esleitzen den egunetik).
- Neurriak aldatu behar izanez gero, epe berdina eskatuko da.

1. LOTEA

AZALPENA: *Mekanikarientzako urpekariak.*

KOPURUA: 10

DESKRIBAPENA:

Mugikorra eramateko poltsiko bat uhin elektromagnetikoak isolatzeko E-CARE ehundurarekin eta atzealdeko 3M reflex zatiarekin, ukalondoak eta belaunak indartuta, elastikoa gerrian + egokitu daitekeen gerria, poltsiko zabalak bularrean, gerrian tresnak daramatza, mahuken eta hanken ebakidura ergonomikoa, gerriaren eta eskumuturren zabalera egokitu daiteke, atzealdean poltsiko bikoitza (bat patinarekin), ezkerraldeko poltsikoa patinarekin, metroa eramateko poltsikoa, mailua eramateko gerria.
Gramajea: 250 g/m²

- ⇨ Kolore urdina / beltza nahiago ---soka/beltza
- ⇨ EN ISO 13688:2013 araudia bete behar du.

AZALPENA: *Mekanikarientzako petoak. UDARAKO*

KOPURUA: 4

DESKRIBAPENA:

Egokitu daitezkeen udalak, kako bidez ixtekoak, atzeko poltsiko bikoitzarekin (horietako bat tapetarekin), belaunak indartuta, boligrafoak eramateko tartea, mailua eramateko euskarria, ebakidura ergonomikoa hanketan eta belaunetan, alboko poltsikoa, bularreko poltsikoa kremailerazko itxiturarekin, mugikorra eramateko poltsikoa E-CARE ehundura isolatzailearekin, metroa eramateko poltsikoa, elastikoarekin egokitu daitekeen gerria, YKK® kremailera

Gramajea: 250 g/m²

- ⇨ Kolore urdina / beltza nahiago ---soka/beltza
- ⇨ EN ISO 13688:2013 araudia bete behar du.

AZALPENA: *Kotoizko buzoak*

KOPURUA: 3

DESKRIBAPENA:

% 100 kotoizko lan-jantzia
Elastikoa gerrian, eskumutur elastikoa eta 280 gr-ko gramajea.

- ⇨ Itsas urdin kolorekoa edo urdinxka

AZALPENA: *Txalekoak*

KOPURUA: 5

- ⇨ Txaleko beltzak edo itsas urdin kolorekoak
- ⇨ Prebarf ehundura babesgarria
- ⇨ Barru-bigunak
- ⇨ Poltsiko askorekin
- ⇨ Homologatutako bi banda islatzailerekin

Gramajea: gutxienez 160 gr/m2.
Tailerreko langileek erabiltzeko

AZALPENA: *Tailerreko langileentzako jantzi termikoak*
KOPURUA: *6 praka eta 6 kamiseta*
- ⇨ 6 unisex praka eta 6 kamiseta lepo biribilarekin

2. LOTEA

Udako jantziak

AZALPENA: *Prakak*
KOPURUA: 160
- ⇨ Osaera: % 65 poliesterra eta % 35 kotoia.
- ⇨ Ondo ikusteko moduko ehundura horia. EN-340 araudia bete behar du.
- ⇨ Ziurtatutako banda islatzaileak zango bakoitzaren inguruan.
- ⇨ EN471 egiaztagiria: Egunez eta gauez, egoera arriskutsuetan, erabiltzailearen presentzia seinaleztatzeko babes-jantziak.
- ⇨ Aurrean poltsikoak eta atzean ere poltsiko bat dituen diseinua. Poltsikoak alboetan.
- ⇨ Modelo zuzena bragetarekin eta tolesekin aurrealdean
- ⇨ Gerri elastikoa
- ⇨ Bi koloreko galtzak (berde iluna/hori fluorra

AZALPENA: *Poloak*
KOPURUA: 105
- ⇨ Bi koloreko poloa, ondo ikusteko modukoa
- ⇨ EN471 egiaztagiria: Egunez eta gauez, egoera arriskutsuetan, erabiltzailearen presentzia seinaleztatzeko babes-jantziak.
- ⇨ "Canalé" formako lepoa eta tapeta, botoiekin ixtekoa.
- ⇨ Ehundura transpiragarria
- ⇨ Goiko aldea hori fluorra eta behekoa berde iluna
- ⇨ Bi banda isolatzaile bularraren inguruan
- ⇨ Osaera: % 100 poliesterra eta/edo nahasketa (% 55 kotoia eta % 45 poliesterra)
- ⇨ Mahuka laburrekoa.
- ⇨ Piezak segurtasuneko puntada duen ehundurarekin batuta.
- ⇨ Aurreko poltsikoa

AZALPENA: *Biserak*
KOPURUA: 30
- ⇨ Biseradun txanoak, udarako
- ⇨ Berde ilunak

Neguko jantziak

AZALPENA: *Forrudun prakak*
KOPURUA: 20
- ⇨ Forrudunak, hotzaren aurkako barru-bigunarekin

- ⇨ Ondo ikusteko moduko ehundura. EN-340 araudia bete behar du.
- ⇨ Ziurtatutako banda islatzaileak zango bakoitzaren inguruan.
- ⇨ EN471 egiaztagiria: Egunez eta gauez, egoera arriskutsuetan, erabiltzailearen presentzia seinaleztatzeko babes-jantziak.
- ⇨ Aurrean poltsikoak eta atzean ere poltsiko bat dituen diseinua. Poltsikoak alboetan
- ⇨ Modelo zuzena bragetarekin eta tolesekin aurrealdean
- ⇨ Xerrendadun gerria edo gerri elastikoa.
- ⇨ Osaera: % 65 poliesterra eta % 35 kotoia
- ⇨ Bi koloreko galtzak Ondo ikusten den hori fluorra goiko banda islatzailetik beheko banda islatzaileraino, gainerakoa berde iluna

Bideak garbitzeaz eta hiri-hondakin solidoak batzeaz arduratzen diren langileek erabiltzeko

AZALPENA: *Mahuka luzeko poloak*
KOPURUA: 46

- ⇨ Bi koloreko poloa, ondo ikusteko modukoa
- ⇨ EN471 egiaztagiria: Egunez eta gauez, egoera arriskutsuetan, erabiltzailearen presentzia seinaleztatzeko babes-jantziak.
- ⇨ "Canalé" formako lepoa eta tapeta, botoiekin ixtekoa.
- ⇨ Ehundura transpiragarria
- ⇨ Goiko aldea hori fluorra eta behekoa berde iluna
- ⇨ Bi banda isolatzaile bularraren inguruan
- ⇨ Osaera: % 100 poliesterra eta/edo nahasketa (% 55 kotoia eta % 45 poliesterra)
- ⇨ Mahuka luzekoa.
- ⇨ Piezak segurtasuneko puntada duen ehundurarekin batuta.
- ⇨ Aurreko poltsikoa

Bideak garbitzeaz eta hiri-hondakin solidoak batzeaz arduratzen diren langileek erabiltzeko

AZALPENA: *Jertseak edo forru polarrak*
KOPURUA: 100

- ⇨ Ondo ikusteko moduko jertsea, **bi kolorekoa**: berde iluna eta hori fluorra.
- ⇨ EN 471 araudia bete behar du, ondo ikusteko moduko seinalizazio-jantziei burukoa.
- ⇨ Lepo altuarekin eta kremailerarekin ixten duen aurreko erdiko irekidurarekin jertsea/forru polarraren kasuan kremailerarekin irekiko litzateke. Ehun akrilikoa edo artilea
- ⇨ Lepo altuko estalki polarra, erdiko kremailera beheraino irekita, ukabil elastikoak barruko gomarekin. Doikuntza kordoi erregulagarriarekin eta alboko bi patrika baxurekin. Ehuna: % 100 Poliesterra
- ⇨ Bai jertsea bai forru polarra, bularrean eta mahuketan homologatutako bi zinta islatzailerekin.

AZALPENA: Uretako txanoak
KOPURUA: 30

- ⇨ Uretako txanoak, berde ilunak

AZALPENA: Artilezko txanoak
KOPURUA: 30

- ⇨ Negurako artilezko txanoak, berde ilunak.

3. LOTEA

AZALPENA: *Zamarra*
KOPURUA: 38

- ⇨ Bi koloreko zamarra (berde iluna eta hori fluorra), ondo ikusteko modukoa.
- ⇨ Aurreko poltsikoak bularrean, alboetan bi poltsiko gerriaren parean eta mugikorra eramateko poltsiko bat.
- ⇨ Zorroa eramateko barruko poltsiko bat.
- ⇨ Homologatutako banda isolatzaileak gorputzaren eta mahuken inguruan.
- ⇨ EN471 egiaztagiria, egunez eta gauez, egoera arriskutsuetan, erabiltzailearen presentzia seinaleztatzeko babes-jantzietarako dena.
- ⇨ Gerrirainokoa, eta elastikoarekin gerrian.
- ⇨ Barruko forru barru-biguna edo polarra. Ken daitezkeen mahukak
- ⇨ % 100 poliesterra edo Pu

Bideak garbitzeaz arduratzen diren langileek eta hiri-hondakin solidoak batzeko txoferrek erabiltzeko

AZALPENA: *Txalekoak*
KOPURUA: 30

- ⇨ Bi koloreko txalekoak (berdea eta hori fluorra) edo dena horia, ondo ikusteko modukoak.
- ⇨ Homologatutako banda isolatzaileak gorputzaren inguruan.
- ⇨ Aurreko poltsikoak kremailerarekin eta tapetarekin eta barruko 1 poltsiko zorroa eramateko.
- ⇨ Bularraren parean ziurtatutako bi banda isolatzaile (50 mm-koak).
- ⇨ EN471 egiaztagiria, egunez eta gauez, egoera arriskutsuetan, erabiltzailearen presentzia seinaleztatzeko babes-jantzietarako dena.
- ⇨ Barru-biguna barrutik

Bideak garbitzeaz eta hiri-hondakin solidoak batzeaz arduratzen diren langileek erabiltzeko

AZALPENA: *Parkak*
KOPURUA: 20

- ⇨ Bi koloreko parka (berdea eta hori fluorra), ondo ikusteko modukoa.
- ⇨ Aurreko poltsikoak kremailerarekin eta tapetarekin eta barruko 1 poltsiko zorroa eramateko.
- ⇨ Homologatutako banda isolatzaileak gorputzaren eta mahuken inguruan.
- ⇨ Bularraren parean ziurtatutako bi banda isolatzaile (50 mm-koak).
- ⇨ EN471 egiaztagiria, egunez eta gauez, egoera arriskutsuetan, erabiltzailearen presentzia seinaleztatzeko babes-jantzietarako dena.
- ⇨ Eskumutur elastikoak.
- ⇨ Barru-biguna barrutik

Bideak garbitzeaz arduratzen diren langileek erabiltzeko.

KONTZEPTUA: *Txalekoak*
KOPURUA: *50*

- ⇨ Ikusgarritasun altuko oinarrizko txalekoa (horia) Araua EN ISO 20471:2013
- ⇨ Banda atzera islatzaileak 3M® SCOTCHLITE™ (Reflective Material) josita.

⇨ Tapeta itxiera zentrala, belkroarekin
⇨ Biguingarririk gabe
Bide garbiketa langileek eta hhs-ak jasotzeko erabiltzeko

4. LOTEA

AZALPENA: *URETAKO jantziak*
KOPURUA: 90

⇨ Ondo ikusteko moduko uretako jantzia, ondo ikusteko moduko seinalizazio-jantziei buruzko EN 471 araua eta irazgaiztasunari buruzko 3 . motako eta gutxienez transpirazioari buruzko 1. motako UNE-EN 343 araua betetzen dituena. **Bi kolorekoak (berdea eta horia), bai jaka eta bai galtzak.**

Ondo ikusteko moduko seinalizazio-jantzia

3: oinarri fluoreszentea duten materialen gainaldeari dagokion mota (1etik 3ra)
2: materia retroerreflektanteari dagokion mota (1etik 2ra)

Euritik babesteko jantzia

3: ura sartzearen aurkako erresistentziari dagokion mota
1: lurruntze-erresistentziari dagokion mota (1etik 3ra)

Jaka

⇨ Kanpoko ehundura % 50 PU- % 50 PA
⇨ Ondo ikus daitekeen jantzi bezala homologatutako jaka, kremailerarekin aurretik ixten dena. Kremailera hori presiozko botoiak dituen tapetarekin estalita egongo litzateke. Txano finkoa, lepoan ezkuta daitekeen kordoia daukana. Azpiko poltsikoak, aurrealdeko zorroarekin. Ehundutako ukabil gainekoak mahukaburuetan, ura ez sartzeko. Jostura irazgaitzak, frekuentzia altuagatik. Banda retroerreflektanteak: 2 bularraren inguruan eta 2 mahuketan.

Galtzak

⇨ Kanpoko ehundura % 50 PU- % 50 PA
⇨ Ondo ikusteko moduko jantzi homologatua. Gerri elastikodun galtzak. Jostura irazgaitzak, frekuentzia altuagatik. Banda retroerreflektanteak: 2 banda zangoan.

5. LOTEA

UDAKO ZAPATAK

AZALPENA: Segurtasun oinetakoak punta sendoarekin eta txantiloiarekin
KOPURUA: 30

⇨ Segurtasun zapatak, puntan eta zolan segurtasuneko errefortzu metalikoarekin zulatuak.
⇨ Segurtasun zapatak, barruko hauspoarekin, lokarriekin, molde zabalarekin, landutako eta fosfatatutako babes-punta metalikoarekin eta zola lodiarekin, ez irristatzeko modukoa.
⇨ Airea pasatzen uzten duten zapatak, transpirazioa ahalbidetzeko zuloekin
⇨ EN 345/1 aintzat hartuta ekoiztutakoa izan beharko da, Batasunaren marka (CE) izan beharko du eta adostasun-adierazpena eta ziurtapena izan beharko ditu.

AZALPENA: Segurtasun oinetakoak puntarik gabe eta txantiloiarekin
KOPURUA: 40

- ⇨ Laneko zapata zulatuak, zuloen aurkako barne zolarekin.
- ⇨ Lokarriekin, molde zabalarekin eta zola lodiarekin, ez irristatzeko modukoa.
- ⇨ Airea pasatzen uzten duten zapatak, zuloekin, edo larru-barrena eta lokarriak dituzten zapatak, transpirazioa ahalbidetzen dutenak.
- ⇨ EN 347 aintzat hartuta ekoiztutakoa izan beharko da, Batasunaren marka (CE) izan beharko du eta adostasun-adierazpena eta ziurtapena izan beharko ditu.

AZALPENA: S1P segurtasun zapatillak
KOPURUA: 50

- ⇨ PUSH S1P SRC
- ⇨ Forrua: Wingtex
- ⇨ Punta: airtoealuminium geruza transpiragarriarekin
- ⇨ Metalezkoa ez den zuloen aurkako barne zola
- ⇨ Ez labaintzeko zola
- ⇨ EN ISO 20345 aintzat hartuta ekoiztutakoa izan beharko da, Batasunaren marka (CE) izan beharko du eta adostasun-adierazpena eta ziurtapena izan beharko ditu.

<u>NEGUKO ZAPATAK</u>

AZALPENA: Segurtasun botak punta sendoarekin eta txantiloiarekin
KOPURUA: 60

- ⇨ Punta eta altzairuzko barne zola dituzten segurtasun botak Lore ile-larru beltz hidrofugatuzko gaina eta aztala. SION-TEX geruza duen forrua. Moldea eta altzairuzko punta, oso zabala.
- ⇨ Ixteko sistema: eraztunak eta kakoak, lokarriekin
- ⇨ Ez labaintzeko zola
- ⇨ Erosoak.
- ⇨ EN 345/1 aintzat hartuta (S3 kategoria) ekoiztutakoa izan beharko da, Batasunaren marka (CE) izan beharko du eta adostasun-adierazpena eta ziurtapena izan beharko ditu.
- ⇨ Hiri-hondakin solidoak batzeaz arduratzen diren langileek erabiltzeko

AZALPENA: Segurtasun bota puntarik gabe eta txantiloairekin
KOPURUA: 50

- ⇨ Puntarik gabeko eta barne zoladun segurtasun botak. Lore ile-larru beltz hidrofugatuzko gaina eta aztala. SION-TEX geruza duen forrua.
- ⇨ Ixteko sistema: eraztunak eta kakoak, lokarriekin
- ⇨ Ez labaintzeko zola
- ⇨ Erosoak.
- ⇨ EN 347 (O3 kategoria) aintzat hartuta ekoiztutakoa izan beharko da.

Bideak garbitzeaz arduratzen diren langileek erabiltzeko

AZALPENA: Segurtasun botak puntarekin eta txantiloiarekin
KOPURUA: 7

- ⇨ Larruzko segurtasun bota beltzak, puntan eta barne zolan segurtasuneko errefortzu metalikoa dutenak.
- ⇨ Ez labaintzeko zola
- ⇨ Erosoak.
- ⇨ Segurtasun botak, barruko hauspoarekin, larruzkoak eta beltzak, molde zabalarekin, landutako eta fosfatatutako babes-punta metalikoarekin.
- ⇨ EN 345/1 aintzat hartuta (S3 kategoria) ekoiztutakoa izan beharko da, Batasunaren marka (CE) izan beharko du eta adostasun-adierazpena eta ziurtapena izan beharko ditu.
- ⇨ Ixteko sistema: solapa, egokitu daitekeen belkroarekin
- ⇨ Tailerreko langileek eta soldatze- eta esmerilatze-lanak egiten dituzten langileek erabiltzeko.

URETAKO BOTAK
AZALPENA: Ur-botak puntarekin eta zulaketaren aurkako txantiloiarekin
KOPURUA: 10

- ⇨ Beltzak

AZALPENA: Ur-botak puntarik gabe eta zulaketaren aurkako txantiloiarekin
KOPURUA: 15

AZALPENA: Punta eta Gore-texgeruzadun barne zola dituzten segurtasun botak
KOPURUA: 12

- ⇨ Larru-barren marroi hidrofugatua duen bota. Poliuretanozko bidentsitate zola.
- ⇨ Gore-Tex forru transpiragarria eta haizetik babestekoa.
- ⇨ Zuloen aurkako barne zola, metalikoa ez dena, metalikoa ez den puntarekin.
- ⇨ Ziurtapena: EN-ISO 20345:2007 S3+SRC+CI+WR
- ⇨ Metalikoa ez den punta, 200 J-ko energiaren talka eta 15 KN-ko konpresioa jasan ditzakeena. Ez labaintzeko modukoak. Lauzaren gaineko SRA (takoia > 0.28, oina <0.32), altzairu gaineko SRB (takoia > 0.13, oina > 0.18), lauza eta altzairu gaineko SRC. Hidrokarburoak jasaten dituen zola. Karga elektroestatikoak barreiatzea ahalbidetzen duten materiala eta egitura: 0.1 eta 1.000MΩ bitarteko erresistentzia. Aztalean 20J-ra bitarteko energia xurgatzeko ahalmena. Atzetik itxiak. Urarekiko erresistentea den eta ura xurgatzen duen larrua. Zuloekiko erresistentzia, 1.100N-ra bitartean. Zola isolatuta dute, hotzik ez sartzeko. Urarekiko erresistentzia izan beharko du zapata osoak.

6. LOTEA (eskularruak)
AZALPENA: *Lore ile-larruzko eskularruak*
KOPURUA: 400

- ⇨ Behiaren lore ile-larruzko eskularruak.
- ⇨ Malguak eta eskumuturrera egokitzeko elastikoarekin. Larruzko azpildura
- ⇨ Larruzko barrena
- ⇨ Lodiera: 0.9mm
- ⇨ Bideak garbitzeaz arduratzen diren langileek eta hiri-hondakin solidoak batzeaz arduratzen diren langileek erabiltzeko
- ⇨ EN 388 araudia bete behar du.

⇨ 2122 erresistentzia maila.
⇨ Fitxa teknikoa eta homologazio-egiaztagiria eskatuko dira.

AZALPENA: *Neguko eskularru irazgaitzak*
KOPURUA: 240
⇨ Inguru hezeetan lan egiteko eskularru irazgaitzak, oso malgua den latex naturalarekin eginak, esku barrurako latexezko mikroporo estra-testuratuen estaldura bikoitzarekin, oso ondo oratzeko. Latex irazgaitzarekin egindako barneko geruzarekin.
⇨ Nylonezko euskarria duen eskularrua, erosoa izateko eta eskura bikain egokitzeko.
⇨ EN388 araudia, honako erresistentzia hauekin: 2131 (urradurak 2 / ebakiak 1/ urratuak 3 / zuloak 1)
⇨ Urarekiko erresistenteak diren eskularruak.
⇨ Ondo oratzen dutenak -- eskumutur elastikoak
⇨ Urdina-beltza.
Fitxa teknikoa eta homologazio-egiaztagiria eskatuko dira

AZALPENA: *Nylonezko eskularruak*
KOPURUA: 200
⇨ % 100 nylonezkoak diren eskularruak, grisak, 15 galga, poliuretano grisarekin estaliak esku barruetan eta azazkalak doazen tokian. Eskumutur elastikoak.
⇨ Ondo oratzen dutenak.
⇨ 4131 erresistentzia maila.
⇨ EN 388 aintzat hartuta ekoitziak
⇨ Fitxa teknikoa eta homologazio-egiaztagiria eskatuko dira.

AZALPENA: *Garbiguneko zamaketariak eta zaintzaileak ez ebakitzeko eskularruak*
KOPURUA: 80
⇨ Josturarik gabeko eskularruak, beira-zuntzezko euskarriarekin
⇨ Nitrilo hareatsu beltzarekin gaineztatuta, hatz koskorretaraino 5. mailako ebakidura. 13 galga
⇨ Ondo oratzen dutenak.
⇨ 4543 erresistentzia maila.
⇨ EN 388 eta EN 420 aintzat hartuta ekoitziak
⇨ Fitxa teknikoa eta homologazio-egiaztagiria eskatuko dira.

AZALPENA: *Nitrilozko eskularruak, behin erabiltzekoak, tailerrerako*
KOPURUA: 75 kutxa
⇨ Nitrilozko eskularruak, hautsik gabeak eta behin erabiltzekoak, azal zimurtsudunak eta bi eskuetako edozeinetarako balio dutenak. Flash Power modeloa.
⇨ 9 g-ko lodiera eta tamaina estra luzea, eskumuturra egin beharreko lanetan erabili beharreko produktu kimikoetatik babesteko.
⇨ EN 420, EN374.1,2/4/5 eta EN455 -1/2/3 araudiak bete behar ditu

AZALPENA: *Estolderian lan egiteko eskularruak*
KOPURUA: 60

- ⇨ Laneko eskularruak, estolderia-sarearen mantentze-lanetan, lurperatutako inguruak garbitzeko lanetan eta abarretan erabiltzeko.
- ⇨ Latex zimurtsuarekin estalitako eskularrua, kotoizko euskarriaren gainetik
- ⇨ EN388 araudia, 4131 erresistentziarekin. Arrisku kimiko eta mikrobiologikoei buruzko EN 374 ziurtapena ere izan beharko du.
- ⇨ Homologazioaren eta egokitasun teknikoaren egiaztagiria gehituko da.
- ⇨ Urraduren aurkako erresistentzia handia izan beharko dute. Laranja kolorekoak
- ⇨ Eskularruak besoaren erdialderaino izatea eta ehundura zimurtsua izatea baloratuko da.

7. LOTEA

AZALPENA: Partikulentzako maskara, balbularekin
KOPURUA: 12 kutxa (120 unitate)
Araua: EN149:2001 + A1:2009
Mota: FFP2

Ziurtapena: Batasunaren marka CE
Duramesh®. Arnesdun posta. M/L neurria (estandarra). Aurpegira guztiz egokitzeko modukoa, ahalik eta gehien zigilatzeko modukoa. Balbularekin. (BE) Behin erabiltzekoa. (D) DOLOMITAS TESTA

- ⇨ Kaleak garbitzeko langileek eta hiri hondakin zerbitzuko kargatzaileek erabiltzeko

AZALPENA: Bapore organikoen edo usain desatseginen aurkako maskara, ikatz aktibatuarekin eta balbularekin
KOPURUA: 8 kutxa (80 unitate)
Araua: EN149:2001+A1:2009
Mota: FFP2 NRD+V AZIDOAK
Ziurtapena: Batasunaren marka (CE)
Bereziki usainak eta gas azidoak murrizteko modukoa. Aurpegira guztiz egokitzeko modukoa, ahalik eta gehien zigilatzeko modukoa. Balbularekin. (BE) Behin erabiltzekoa. (D) DOLOMITAS TESTA.
Estolderietan eta tailerretan aritzen diren langileek erabiltzeko

AZALPENA: Soldatzaileentzako MASKARA
KOPURUA: 30 unitate
Partikulen, kearen eta aerosol solido edo likidoen (oinarri urtsua edo oleikoa dutenak) aurkako maska Ikatz aktibatuzko geruza bat dauka, usainak eta substantzia organikoak desagerrarazteko TLV baino txikiagoak diren kontzentrazioetan.
Soldatze-prozesuetan sortzen diren ke orokorren eta Ozono maila txikien aurkakoa (TLV baino txikiagoak).
Jariatze-balbulak erosotasun handiagoa eskaintzen du.
Ziurtapena: Batasunaren marka (CE)
Araua: EN149:2001
Mota: FFP3

- ⇨ Tailerreko langileek erabiltzeko

AZALPENA: Soldatzeko eta ebakitzeko PANTAILA bereziak
KOPURUA: 2 unitate
Maila optikoa: 2
Ikusgailua: azetatoa, zelulosa berdea, 385 x 220 mm eta 1,3 mm-ko lodieraduna
Babes-maila: 5a
Erabilera: soldatze oxiazetilenikoaren prozesuetan eta oxiebaketa prozesuetan igorritako erradiazioen aurkako babesa, abiadura handiko eta energia baxuko (F) partikulen talka gertatzeko arriskuaren aurkako babesa eta tanten eta zipriztinen aurkako babesa.

AZALPENA: Zarataren aurkako belarriak
KOPURUA: 5 unitate
SNR=27dB EN 352-1
Modeloa: Peltor optime II, 3M-koa
Betegarridun uhaleria barrualdean.
Betegarri leunak eta forma anatomikoarekin, hobeto zigilatzeko.
Banakako presio-egokitzapena.

AZALPENA: Behin erabiltzeko txanoak, lepora eta aurpegira egokitzen direnak, pinturarako
KOPURUA: 30 unitate
Lepodun txanoa
Elastikoa lepoaren eta aurpegiaren inguruan

AZALPENA: BETAURREKOAK
KOPURUA: 20 unitate
Nylonezko armadura duen betaurreko bat, ahalik eta babes eta arintasun handiena lortzeko.
Aparrez estalitako sudurreko babeslea.
Super Anti rayado (K) eta Super Anti empañante (N) ziurtagiria duten lenteak.
Polikarbonatozko lenteak, UV400 babesa dutenak. Kamba modeloa

AZALPENA: Bisita modeloko BETAURREKOAK (betaurrekoak estaltzekoak)
KOPURUA: 5 unitate
Armazoia, kolorerik gabeko eta marratuen eta lausotzearen aurkako polikarbonatozko leiarrarekin. Beste betaurreko neurtu batzuen gainetik erabiltzeko.

AZALPENA: Bisitetareko burua babesteko KASKOAK (estalkia/betaurrekoak)
KOPURUA: 8 unitate
Hiri-hondakinak biltzeko zerbitzuaren kargatzaileentzat.

NAHITAEZKO BALDINTZA TEKNIKOAK

Jarraian azaldu dira aurkeztutako eskaintza guztiek nahitaez bete beharreko zehaztapen teknikoak.

- Eskainitako produktuen ezaugarri teknikoek eskatutako baldintzak bete behar dituzte. Produktu batek plegu honetan adierazitako ezaugarriak ez baditu, hornitzaileak ezingo du produktu horren lotea irabazteko lehiaketan parte hartu.
- Batasunaren marka (CE) eta fitxa teknikoa eraman beharko dute artikulu guztiek eta xede duten lan motari aplika dakiokeen araudia bete beharko dute.
- Eskainitako prezioak garraio sariak ere barne hartuko ditu. Lotea osatzen duen artikulu bakoitzaren prezio unitarioak eta lote bakoitzaren guztizko prezioa eskainiko ditu lehiakideak.
- Eibarko Transferentzia Estazioan entregatu beharko da produktua, Elgetako errepideko 2. km-an, alegia.
- Lote bakoitzaren lizitatzaileak lote hori osatzen duten jantzi guztien lagin bat aurkeztu beharko du, behar bezala identifikatuta. Horrez gain, jantziaren neurria eta osaera adierazi beharko dira. Zapatei buruzko 5. lotean lagin bakarra aurkeztearekin nahikoa izango da “puntadun eta puntarik gabeko” modeloak bat baldin badatoz.

4. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Formula bat aplikatuta puntuak esleitzeko irizpideak:

Kontzeptu horietan, gehienez ere, 100,00 puntu esleituko dira.

4.1. 1etik 6ra bitarteko loteak honela baloratuko dira:

4.1.1. Eskaintza ekonomikoa:

Proposamen ekonomikoa, 90,00 puntu, gehienez ere.

Eskaintza ekonomikorik onena aintzat hartuta egingo da esleipena, lotea osatzen duten jantzi guztiek txosten honetan adierazitako baldintzak betetzen badituzte.
Lizitatzaile bakoitzaren eskaintza ekonomikoa kalkulatzeko, eskaintzan sartutako jantzi bakoitzaren prezio unitarioa eta kontsumitzea espero den unitate kopurua biderkatuko dira. Lote bakoitzeko egingo da eragiketa hau.

Eskaintza ekonomikoen puntuazioak, onartutako proposamenenak, kalkulatzeko, horien arabera egingo da, interpolazio linealaren bitartez, P2 (gehieneko baja, gehieneko puntuazioa) eta P1 (zero baja, gutxieneko puntuazioa) puntuek definitutako zuzenari jarraituz, eta haiek mugatutako zuzen horren segmentuaren barruan.

Honako hauek dira aipatutako puntuak:

P2 – Eskaintza ekonomikoenari dagokio (gehieneko baja), hari gehieneko puntuazioa emango zaio, hau da, 90,00 puntu.

P1 – Lizitazio motari dagokiona, hari emango zaio gutxieneko puntuazioa, formula honi jarraituz:

Lizitazio motari dagokion gutxieneko puntuazioa:
P1 = Pmin = 90,00 x (1-(3 x Bmax))
Bmax = gehieneko baja.

Bajatzat (B_i) jotzen da lizitazioaren oinarrizko prezioaren eta eskainitako prezioaren$_i$(BEZakanpo) diferentzia, horren emaitza lizitazioaren oinarrizko prezioarekin zatituta.

Pmin negatiboa balitz, Pmin = 0.

Lehen definitutako zuzena lortzeko, onartutako eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Printzipioz, neurriz kanpokotzat edo ausartegitzat jo ahal izango da proposamen baten baja, horren ehunekoak gutxienez ehuneko 10 puntutan gainditzen badu onartutako proposamen guztien bajaren ehunekoen batez besteko aritmetikoa, eta hura izendatzeko kontratazio organoa ados egon beharko da, bertako lizitatzaile guztiei informazioa eskatu eta dagokion zerbitzuko aholkularitza teknikoa jaso ondoren.

4.1.2.Ingurumen-irizpideak

Kontzeptu horrengatik gehienez 10 puntu eman ahal izango dira.

Ingurumen-inpaktuak eta osasunaren arriskuak murrizteko, eskaintzen dituzten jantziak eta elementuak azken produktuan substantzia kimikoen presentzia mugatzeko baldintzak betez egin direla egiaztatzen duten eskaintzak baloratuko dira, OEKO-TEX Standard 100, OEKO-TEX MADE IN GREEN, ORGANIC 100 – ECOCERT edo baliokidean zehaztutako estandarren arabera.

* Kontzeptu horrengatik puntuak emateko, lizitatzaileak dagokion ingurumen-etiketa duela egiaztatu beharko du ziurtagiri bidez. Era berean, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, lotea osatzen duten jantzi guztiek etiketa edo ingurumen-ziurtagiri hori dutela adieraziz.

Puntuazioa honela esleituko da:

Gehieneko puntuazioa, hau da, 10 puntu emango zaizkio ingurumen-ziurtagiri gehien egiaztatzen dituen lizitatzaileari, eta 0 puntu emango zaizkie ingurumen-ziurtagiririk egiaztatzen ez duten eskaintzei.
Gainerako eskaintzei puntuak emango zaizkie aurreko bi puntuen arteko interpolazio linealaren ondoriozko kalkuluaren arabera, hau da, 0 eta 10 puntu artean.

4.2. 7. lotea honela baloratuko da:

4.2.1.Eskaintza ekonomikoa:

Proposamen ekonomikoa, 100,00 puntu, gehienez ere.

Eskaintza ekonomikorik onena aintzat hartuta egingo da esleipena, lotea osatzen duten jantzi guztiek txosten honetan adierazitako baldintzak betetzen badituzte.
Lizitatzaile bakoitzaren eskaintza ekonomikoa kalkulatzeko, eskaintzan sartutako jantzi bakoitzaren prezio unitarioa eta kontsumitzea espero den unitate kopurua biderkatuko dira. Lote bakoitzeko egingo da eragiketa hau.

Eskaintza ekonomikoen puntuazioak, onartutako proposamenenak, kalkulatzeko, horien arabera egingo da, interpolazio linealaren bitartez, P2 (gehieneko baja, gehieneko puntuazioa) eta P1 (zero baja, gutxieneko puntuazioa) puntuek definitutako zuzenari jarraituz, eta haiek mugatutako zuzen horren segmentuaren barruan.

Honako hauek dira aipatutako puntuak:
P2 – Eskaintza ekonomikoenari dagokio (gehieneko baja), hari gehieneko puntuazioa emango zaio, hau da, 100,00 puntu.

P1 – Lizitazio motari dagokiona, hari emango zaio gutxieneko puntuazioa, formula honi jarraituz:

Lizitazio motari dagokion gutxieneko puntuazioa:

$P1 = Pmin = 100,00 \times (1-(3 \times Bmax))$

Bmax = gehieneko baja.

Bajatzat (B_i) jotzen da lizitazioaren oinarrizko prezioaren eta eskainitako prezioaren$_i$(BEZakanpo) diferentzia, horren emaitza lizitazioaren oinarrizko prezioarekin zatituta.

Pmin negatiboa balitz, Pmin = 0.

Lehen definitutako zuzena lortzeko, onartutako eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Printzipioz, neurriz kanpokotzat edo ausartegitzat jo ahal izango da proposamen baten baja, horren ehunekoak gutxienez ehuneko 10 puntutan gainditzen badu onartutako proposamen guztien bajaren ehunekoen batez besteko aritmetikoa, eta hura izendatzeko kontratazio organoa ados egon beharko da, bertako lizitatzaile guztiei informazioa eskatu eta dagokion zerbitzuko aholkularitza teknikoa jaso ondoren.

5. BERDINKETAK HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketarik badago, honela desegingo da:

.- Enpresa bakoitzean ezintasunen bat duten edo gizartetik baztertuta dauden langileen ehuneko handiena alderatuta. Lehentasuna izango du plantillan ezintasunen bate duten langile finko gehien edo gizartetik baztertuta zeuden pertsona gehien laneratu dituen enpresak, berdinketarik badago.

Berdinketa ez bada desegin, lehentasuna izango du enpresa bakoitzetik plantillan aldi baterako langile gutxien dituenak.

Berdinketa ez bada desegin, hori hautsiko da enpresa bakoitzetik plantillan emakume gehien dituenaren alde.

Berdinketak aurrera egiten badu, hori zozketa bidez hautsiko litzateke, aurreko irizpideekin ere berdinketa desegin ez bada.

6. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratuaren xedea, kontratua betetzearen ondorioz eragina izan dezaketen ingurumen-balioak mantentzea edo hobetzea da, hondakinak sortzearen prebentzioa sustatuz edo, hala badagokio, hauek lehentasunezko hurrenkeraren arabera kudeatzen direla: prebentzioa, berrerabilpenerako prestatzea, birziklatzea eta berreskuratzeko beste mota batzuk, energia balorazioa barne. Prozedura horien aplikazioa egingarria ez balitz, arrazoi teknikoak edo ekonomikoak direla eta, hondakinak kenduko dira ingurumenaren gaineko eragina saihestuz edo minimizatuz.

7. INFORMAZIO OSAGARRIA

7.1. 1etik 6ra bitarteko loteetarako formula aukeratu izanaren justifikazioa

7.1.1. Eskaintza ekonomikoa:

Formulak puntuak P1 eta P2ren arteko interpolazio linealaren bidez banatzen ditu. P1 lizitazioaren prezioa da, P1 = 90 x (1-(3 x gutxieneko baja)), eta P2ri eskaintza ekonomikoena dagokio, hau da, baja handiena duen eskaintzari 90 puntu esleituko litzaizkioke. Tarteko eskaintzei puntuak bi puntuen arteko interpolazio linealaren bitartez emango litzaizkieke, abzisetan eskaintza bakoitzaren bajak jarrita eta ordenatuetan eskaintza bakoitzari esleitu beharreko puntuak.

Hautatutako formulak eskaintza baxuenari ematen dizkio kontzeptu horregatik esleitu daitezkeen puntu guztiak, eta lizitazio-prezioari ematen zaio gehieneko puntuazioa (1-(3 x gutxieneko baja) faktorearekin bidertzearen emaitza, ehuneko gehieneko bajan adierazitakoa.

Horrela, lizitatzaileren batek hornidura lizitazioaren prezioan eskainiko balu, jasotako puntuak nabarmen baxuagoak izango lirateke ahalegin bat egin eta lizitazioarenak baino prezio baxuagoak eskainiko balitu baino.

Halaber, zenbat eta baxuagoa izan eskaintza ekonomikoena, orduan eta baxuagoa izango da lizitazioaren prezio bera duen eskaintza batek lortutako puntuazioa. Beraz, nahikoa aldentzen da alderantzizko proportzionaltasunaren erregela baten puntu banaketaren irizpidetik, puntuak interpolatzeko zuzenak pendiz nabarmen handiagoa hartzen duelako eskaintza ekonomikoena baxuagoa bada. Horrela, saritu egiten da prezio baxuagoa eskaintzen duenaren ahalegina. Erabilitako formularen beste ezaugarri bat da lizitatzaile ezberdinek eskainitako antzeko bajei antzeko puntuazioak ematen dizkiela.

7.1.2. Ingurumen-irizpideak:

Puntuak esleitzea proposatzen da, ingurumen-ziurtagiriak egiaztatzeko eskainitako balioen proportzioan, hau da, zenbat eta ingurumen-ziurtagiri gehiago, orduan eta puntuazio handiagoa.

Kasu honetan puntuak esleitzeko, muturreko bi punturen arteko interpolazio linealaren bidez egiten da (0 eta 10 puntu), eta, beraz, ingurumen-ziurtagiriak dituztela egiaztatzen duten enpresak saritzen dira, ingurumenari laguntzeko.

7.2. 7. loterako formula aukeratu izanaren justifikazioa

7.2.1. Eskaintza ekonomikoa:

Formulak puntuak P1 eta P2ren arteko interpolazio linealaren bidez banatzen ditu. P1 lizitazioaren prezioa da, P1 = 100 x (1-(3 x gutxieneko baja)), eta P2ri eskaintza ekonomikoena dagokio, hau da, baja handiena duen eskaintzari 100 puntu esleituko litzaizkioke. Tarteko eskaintzei puntuak bi puntuen arteko interpolazio linealaren bitartez emango litzaizkieke, abzisetan eskaintza bakoitzaren bajak jarrita eta ordenatuetan eskaintza bakoitzari esleitu beharreko puntuak.

Hautatutako formulak eskaintza baxuenari ematen dizkio kontzeptu horregatik esleitu daitezkeen puntu guztiak, eta lizitazio-prezioari ematen zaio gehieneko puntuazioa (1-(3 x gutxieneko baja) faktorearekin bidertzearen emaitza, ehuneko gehieneko bajan adierazitakoa.

Horrela, lizitatzaileren batek hornidura lizitazioaren prezioan eskainiko balu, jasotako puntuak nabarmen baxuagoak izango lirateke ahalegin bat egin eta lizitazioarenak baino prezio baxuagoak eskainiko balitu baino.

Halaber, zenbat eta baxuagoa izan eskaintza ekonomikoena, orduan eta baxuagoa izango da lizitazioaren prezio bera duen eskaintza batek lortutako puntuazioa. Beraz, nahikoa aldentzen da alderantzizko proportzionaltasunaren erregela baten puntu banaketaren irizpidetik, puntuak interpolatzeko zuzenak pendiz nabarmen handiagoa hartzen duelako eskaintza ekonomikoena baxuagoa bada. Horrela, saritu egiten da prezio baxuagoa eskaintzen duenaren ahalegina. Erabilitako formularen beste ezaugarri bat da lizitatzaile ezberdinek eskainitako antzeko bajei antzeko puntuazioak ematen dizkiela.

Jantziz eta norbera babesteko ekipamenduz hornitzeko zerbitzuaren kostuen kalkulua

Kostuak kontzeptuen arabera xehatuta	Kostuetan parte hartzearen %				Kostuetan parte hartzea, eurotan (BEZa kanpo)			
	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Beste gastu batzuk		Zuzenekoak	Zeharkakoak	Beste gastu batzuk	
Langileen gastuak, ZUL	0,40				14.668,50	0,00	0,00	0,00
Langileen gastuak, ZEL		0,10			0,00	3.667,13	0,00	0,00
Hornidurak	0,23				8.434,39	0,00	0,00	0,00
Gastu finantzarioa		0,05			0,00	1.833,56	0,00	0,00
Ibilgetuaren amortizazioa	0,1				3.667,13	0,00	0,00	0,00
Gastu orokorrak			0,06		0,00	0,00	2.200,28	0,00
Etekin industriala				0,06	0,00	0,00	0,00	2.200,28
GUZTIRA	0,73	0,15	0,06	0,06	26.770,02	5.500,69	2.200,28	2.200,28
	1,00				36.671,26			

8.3. Lizitazioaren prezioak kalkulatzeko metodoa

Kostuak kalkulatzeko, kontuan hartu da haien banaketa, honela, eta kostua osatzen duten partiden zama: Zuzeneko langileen gastua, % 40; zeharkako langileen gastua, % 10; horniduren gastua, guztira, % 23; gastu finantzarioa, % 5; ibilgetuaren amortizazioa % 10; gastu orokorrak, % 6; eta etekin industriala % 6. Hau da, zuzeneko gastuak, guztizko kostuaren % 73; zeharkakoak, % 15; eta beste gastu batzuk, % 12.